

Euskal Herriko Ahotsak  
ahotsak.com

*Mari Paz Elorriaga Garitaonandia*

*Abadiño,  
Bizkaia  
(1932-2024)*

Aurkibidea



## Biografia



Gerediaga auzoko Gerediaga baserriko alaba. Aita zuen bertakoa eta ama berriztarra. Trañako eskolara eta Durangoko Santa Susana ikastetxera joan zen umetan, 13 urtera arte. Ezkondu ostean auzo bereko "Uxarre" Urizar baserrira joan zen bizitzera. Bere auzokidea den [Teresa Bengoa](#) gaz batera egin genion lehengo Gerediagari buruzko elkarrizketa. Hika trataera da nagusi. Irudian eskumako aldean ageri dena da Mari Paz.

## Zintak

### ABD-016

- **Proiektua:** Abadiñoko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data:** 2012-11-20
- **Iraupena:** 60 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxazarra, Ainhoa

### ABD-017

- **Proiektua:** Abadiñoko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data:** 2012-11-20
- **Iraupena:** 71 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

## Pasarteak

### 1. Teresaren ama birritan ezkondu zen

- **Erref:** ABD-016/003
- **Iraupena:** 0:01:01. **Hasi:** 00:04:37. **Bukatu:** 00:05:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

#### Laburpena:

<p>Teresaren amari gizona hil jakon eta ostean morroiarekin ezkondu zen. Neba-arreba bi lehenengo ezkontzakoak ziren eta lau bigarren ezkontzakoak.</p>

### Transkripzioa

- Mari Paz: Zuen ama Oruako semiaz euenan ezkontute.
- Teresa: Bai, ta hil zan.
- Mari Paz: Ta hil zan.
- Teresa: Hil zan.
- Mari Paz: Ta hil zanien, gero krixauaz ezkondu zan.
- Teresa: Bai, krixau e egon zan han. [...]
- Mari Paz: Asike aurreko ezkontzakue zan, bai. Hormaetxea.
- Teresa: Etorri zan, Zeanuritik etorri zan. Baiña Zeanurin beste etxe baten be egon zan, krixau. Ta handik pasau zan Oruara.
- Mari Paz: Oruara.
- Teresa: Oruen egon zan gero.
- Mari Paz: Bengoa. Pedro Bengoa.
- Teresa: Bengoa, abizena.
- Klaro, zure aman bigarren ezkontzakoa.
- Teresa: Bigarren ezkontzakue.
- Mari Paz: Bai, bai.
- Ta neba-arreba danok zarie bigarren ezkontzakoak?
- Teresa: Lau bai. Lau azkeneko ezkontzakuek. Ta bi zien bakarrik lehenengo gizonaz.
- Mari Paz: Bai ta harek hil zien.
- Teresa: Hil zien harek.
- Mari Paz: Bai.
- Orduen famili handixe ziñien?
- Teresa: Bueno bai, nik ezetu nabezan, bixek ezetu nabezan.
- Mari Paz: Neuk be bai.
- Teresa: Gaixoik egon zanien hik be bai.
- Mari Paz: Felisa ta. Felisa ez gaiñunan ezautuko ba! Ta Kontxes be bai.
- Teresa: Kontxes.
- Mari Paz: Kontxe be bai.

## 2. Lutoa hildakoengatik

- **Erref:** ABD-016/004
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:05:38. **Bukatu:** 00:07:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

### Laburpena:

Beltzez jantzen ziren familiakoren bat hiltzen zenean, lutoa jartzen zuten. Hildakoa hurbilekoa izanez gero, urte biz jartzen zuten lutoa; bestela, urtebetez. Alargunek bizi guztian eramaten zuten lutoa, kendu barik.

## 3. Bigarren ezkontzak

- **Erref:** ABD-016/005
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 00:07:23. **Bukatu:** 00:08:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Alarguntasuna
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

**Laburpena:**

Lehen, andre zein gizon alargunak ezkontzen ziren. Batzuk, oster, betiko alargun geratzen ziren. Orduan, bikoteak ez ziren banatzen; ezkontza betiko izaten zen.

**Transkripzioa**

- Zure ama atzera be ezkondu zan.
- Bai.
- Han sasoiñ gizon alargunek bai ezkontzen zien baiña andra alargunek...
- Bai,bai,bai iguel, bai,bai, bai...
- Hoixe baietz.
- Ta asko geatze zien alargun betiko.
- Baitte hori're, bai.
- Nire agiñarreba...
- Oingo plana ez behintzet, oin itten dabierna, separau ta kitto! Lehen halakoa izaten zuten.
- Orduantxe... separasiñoik.
- Hor ezkontza izate zen liberaziñue izaten zan.
- Baitta, bai.
- Ezkondu itte za, ezta?
- Ba ya esta.
- Ya esta.
- Bizi guztirako, lehen holan zan, gure ezkontza guk be ez genduan (...)
- pentsau bez holakoik.
- Gure ama Dolores, nire amagin arreba hogeta hamasei urteaz geldittu zunan alargun, ta beti baltzik.
- Bai,bai,bai
- Beti baltzik.
- Durungon bizi zana, ezton?
- Ez, etxeko ama Dolores.
- Ah bai.
- Dolores
- Dolores bai, bai hoixe.
- Bai gauzak holantze izaten die.

**4. Erlijioak indarra galdu du**

- **Erref:** ABD-016/007
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 00:09:53. **Bukatu:** 00:11:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa

**Laburpena:**

Erlijioak indar handia zeukan lehen. Oraingoek, oster, ez dute sinesten. Lehen dena konfesatu behar izaten zuten, baina orain bekaturik ere ez dago.

**5. Familiako hildakoak euren begira**

- **Erref:** ABD-016/009
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:12:33. **Bukatu:** 00:13:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia

**Laburpena:**

Oraingo pelikulak ez zaizkie gustatzen. Umeek bertatik ikasten dutela uste dute. Hildakoen arimei buruzko telesailak, ostera, egiaztat dituzte, hildakoak euren begira daudela uste dute eta.

**6. Auzoko baserrien izenak**

- **Erref:** ABD-016/011
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 00:15:33. **Bukatu:** 00:17:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

**Laburpena:**

Ugazaba bizi zen etxearen izena Orue da eta ondokoa "Orue Accesoria", azken hau txikiagoa. Salbadore, ostera, auzoko ermitari esaten diote. Mari Paz Gerediaga baserritik Urizar ('Uxar') baserrira ezkondu zen.

**7. Bizikletan ibiltzen ikasten**

- **Erref:** ABD-016/013
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 00:19:00. **Bukatu:** 00:21:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

**Laburpena:**

Teresak eta lagunak "Apatanean" bizikleta bana alokatu zuten bizikletan ibiltzen ikasteko asmoz. Ia-ia erre kara jausi ziren.

**8. Bizikleta garraiobide**

- **Erref:** ABD-016/014
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:21:22. **Bukatu:** 00:22:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak

**Laburpena:**

Sarri erabili izan dute bizikleta Abadiñora elizara joateko edo esneekin San Faustora joateko.

**9. Elizara joatea derrigorrezkoa**

- **Erref:** ABD-016/015
- **Iraupena:** 0:00:43. **Hasi:** 00:22:46. **Bukatu:** 00:23:29

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak

**Laburpena:**

<p>Zazpietako mezara makina bat bider joan dira oinez. Kontsezio egunean ere sakratua izaten zen mezara joatea eta baita bigarren domekan ere, <em>Hijas de Mar&iacute;a</em>tara.</p>

## 10. "Sakalamantekas" eta "patapantxintxilla"

- **Erref:** ABD-016/016
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 00:23:29. **Bukatu:** 00:25:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak

**Laburpena:**

Behin, tximiniaren kontra zegoela loak hartu zuen Mari Paz eta behe-sura jausi zen. Gero, praktikantearengana egunero joan behar eta beldur handia izaten zuen bidean, 'Sakalamantekas' eta 'matapantxintxilla' zirela eta.

## 11. Umetan "saladillak" eta barkilloak erosten zituzten

- **Erref:** ABD-016/017
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 00:25:28. **Bukatu:** 00:26:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

**Laburpena:**

Zubiondon "saladillak" eta holako gauza gozoak egoten ziren umeentzat. San Blasetan ere barkilloak erosten zituzten. Asko aldatu dira gauzak euren sasotik hona.

## 12. Eskola

- **Erref:** ABD-016/018
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:26:57. **Bukatu:** 00:28:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

**Laburpena:**

Eskolara ere oinez joaten ziren. Lasterbideak erabiltzen zituzten sarritan. Hamar urtera arte Trañako eskolan ibili ziren eta gero mojangana joan ziren, esku-beharrak bertan ikasten ei ziren ondoen eta.

## 13. Udan eskola utzi baserriko beharrak egiteko

- **Erref:** ABD-016/019

- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 00:28:33. **Bukatu:** 00:30:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserría » Baserriko lanak

**Laburpena:**

Eskolara neguan baino ez ziren joaten, udan baserriko beharrak egin behar izaten ziren eta: itaurrean, ortuko beharrak, behiak zaindu, astoaren bila joan...

## 14. Neskak maistrarekin puntu egiten

- **Erref:** ABD-016/020
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:30:04. **Bukatu:** 00:31:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

**Laburpena:**

Trañako eskolan, maisua egoten zen mutilekin eta maistra neskekin. Doña Juliana eta Mari Cruz maistrak ezagutu dituzte. Puntua egiten ere erakusten zuten maistrek.

## 15. Bilbora lehenengoz

- **Erref:** ABD-016/021
- **Iraupena:** 0:04:36. **Hasi:** 00:31:29. **Bukatu:** 00:36:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

**Laburpena:**

Bilbon kontzentrazio moduko bat egin zuten behin eta eskola bakoitzak esku-beharra egin zuen bertara eramateko. Orduan egon zen lehenengoz Mari Paz Bilbon. Teresa, oster, sarritan joan zen jeneroa saltzen Bilbora bost eta erdietako trenean.

## 16. Maisu-maistrak

- **Erref:** ABD-016/023
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:37:41. **Bukatu:** 00:39:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

**Laburpena:**

Eskolan maistra bat egon zen neska guztiekin, Mari Cruz; eta maisu bat mutilekin, Juan Bautista. Maistraren gizona kartzelan egon zen. Askotan, Teresari estufa ondora joateko esaten zion, azkordinak izaten zituen eta.

## 17. Eskolan debekatuta zegoen euskaraz egitea

- **Erref:** ABD-016/024
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 00:39:21. **Bukatu:** 00:41:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

### Laburpena:

Eskolan erdaraz egin behar izaten zuten, nahiz eta maistra euskalduna izan. Askotan zigortuta egoten ziran, euskaraz berba egitearren.

## 18. Guardia zibilak eskolarik eskola

- **Erref:** ABD-016/025
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 00:41:27. **Bukatu:** 00:43:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Lanbideak » Polizia
- Bestelako kontuak » Gaur egungo kontuak

### Laburpena:

Guardia zibilak eskolarik eskola ibiltzen ziren zaldi gaineen. Euskarazko errotuluak kentzen zituzten eta umeek euskaraz egiten zuten begiratzen zuten. Orain, oster, umeak euskarazko eskoletara doaz eta erdaraz egiten dute berba.

## 19. Guardia Zibilak Durangon

- **Erref:** ABD-016/027
- **Iraupena:** 0:00:46. **Hasi:** 00:44:39. **Bukatu:** 00:45:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Lanbideak » Polizia

### Laburpena:

Guardia Zibilak Durangoko kuarteletik etortzen ziren. Gerra aurrean, oster, foralak egon ziren.

## 20. Bonbardaketa

- **Erref:** ABD-016/028
- **Iraupena:** 0:03:44. **Hasi:** 00:45:25. **Bukatu:** 00:49:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

### Laburpena:

Gerra sasoiaren, bonbardaketak Durangon harrapatu zituen asko bertan hil ziren. Teresaren familiak babesleku moduko bat egin zuen etxe parean. Hala ere, inguruan ihesian zebiltzan beste asko bonbardaketak harrapatu zituen.

## 21. Informazio falta gerraostean

- **Erref:** ABD-016/029
- **Iraupena:** 0:02:16. **Hasi:** 00:49:09. **Bukatu:** 00:51:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco

### Laburpena:

Auzoko baten irratan entzuten zituzten kanpotik (Frantziatik, Ingalaterratik) ematen zituzten berriak. Hala ere, guardia zibilak inguruan ibiltzen ziren irratia zituzten edo ez jakin nahian.

## 22. Gerra sartu zenean etxetik irten behar

- **Erref:** ABD-016/030
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 00:51:25. **Bukatu:** 00:52:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

### Laburpena:

Matienako zubia dinamitaz bota nahi zuten, Francoren aldekoak pasa ez zitezen. Horregatik, etxetik irten behar izaten zuten gurdia beteta. Teresaren familia, esaterako, Sarrira joan zen.

## 23. Kanpoko jendea hartu etxean

- **Erref:** ABD-016/031
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:52:36. **Bukatu:** 00:54:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » lhes egin beharra

### Laburpena:

Gerra sasoiari, ganaduak ere atera behar izan zituzten etxetik. Etxean geratu zirenek kanpoko jendea hartzen zuten; Mari Paz en etxean, esaterako, Axpeko artzain bat izan zuten.

## 24. Miliziano alemaniarrek

- **Erref:** ABD-016/032
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 00:54:36. **Bukatu:** 00:56:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

**Laburpena:**

Gerraostean milizianoak, alemaniarrek, sartu ziren etxeetara. Inguruko basoak ere hartu zituzten. Patxadazkoak izan ziren alemaniarrok, onak. Mororik ez zen egon inguruan. Gero, bertako soldaduak etorri ziren, hiru erregimentu.

**25. Gerraosteko gosea I**

- **Erref:** ABD-016/033
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 00:56:38. **Bukatu:** 00:57:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

**Laburpena:**

Baserrikoek etxean hartzen zutena jaten zuten, baina gose galanta egon zen gerraostean. Soldaduek beharrak egiten zituzten baserrietan jatekoaren truke.

**26. Gerraosteko gosea II**

- **Erref:** ABD-016/034
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:57:52. **Bukatu:** 00:59:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

**Laburpena:**

<p>Baserritarrek behar egiten zuten jan ahal izateko, baina beste batzuk estraperloan ibiltzen ziren. Eskeko asko zegoen, ezagunak, eta herritarrek ahal zutena ematen zieten.</p>

**Ahotsak.eus**-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.  
*2026-08-27*

**CC-by-sa | Ahotsak.eus**  
Badihardugu Euskara Elkartea  
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar  
943121775 - ahotsak@ahotsak.com